

ZIBERGELA



Ordenagailua aldatu aurretik egin beharrekoak



Datuak transferitzeko eta informazioa ezabatzeko, hainbat urrats egin behar dira

JOSU WALIÑO
Elhuyar fundazioa

Gabonak hurbiltzen ari dira, eta jende askok izango du buruan etxeko ordenagailu zaharra behingoz erretiratu eta ordenagailu berri batera aldatzeko asmoa. Ordenagailu zaharra askotan ez da hain zaharra izaten, eta, bota beharrean, lagunen bati edo GKE-ren bati eman, edo, besterik gabe, birziklatzera bidaltzen da. Urrats hori egin aurretik, ordea, komeni da ordenagailu aldaketa behar bezala planifikatzea, ustekaberik ez izateko.

Datuak nola transferitu

Lehenengo, ordenagailu zaharretik berrira informazioa nola mugitu

tuko den erabaki behar da. Hainbat modutan egin daiteke: informazio zaharra Pendrive edo DVDetan grabatu eta zuzenean ordenagailu berrira pasatzea da errazena; baina musikak, bideoak eta horrelakoak toki asko behar izaten dutenez, DVDetan grabatzen hasiz gero, lan handia izan daiteke.

Informazio asko mugitzeko, egokiagoa izaten da ordenagailu zaharretik berrirako transferentzia zuzenean egitea. Bi ordenagailuak Ethernet bidez konektatuz gero, erraz egin daiteke transferentzia sareko kablea erabiliz. Baina etxeetan ez da hain ohikoa izaten aukera hori. Kasu horietarako, badago beste aukera bat: datuak transferitzeko USB kableak. Kable horiek ez dira beharrean, lagunen bati edo GKE-ren bati eman, edo, besterik gabe, birziklatzera bidaltzen da. Urrats hori egin aurretik, ordea, komeni da ordenagailu aldaketa behar bezala planifikatzea, ustekaberik ez izateko.

Bide bat zein bestea erabili, komeni da mugitu nahi den informazio guztia aurretik txukundu

Ordenagailu batetik bestera informazioa mugitzeko transferentzia zuzenean egitea komeni da

eta antolatuta edukitzea: ordenagailu zaharretik hartu beharreko informazio guztia karpeta bakarrean jasotzea izaten da egokiena, oharkabeen zerbait mugitu gabe ez uzteko.

Zer informazio mugitu

Ordenagailu zaharrean gordeta dauden dokumentu, bideo, argazki eta antzeko guztiak berrira pasatu behar direla garbi izaten dugu. Baina garrantzi handiko beste informazio asko dago oharkabeen ahaztuta gera daitekeena. Nagusiak hauek:

■ **Posta elektronikoa.** Gogoan izan behar da posta elektronikoko guztia esportatu eta ordenagailu berrian erabiliko den programaren berriz inportatu behar dela. Hori egiteko modu bat baino gehiago daude, erabiltzen den posta elektronikoko programaren arabera. Thunderbird erabiliz gero, badago MozBackup izeneko aplikazio erabilgarri bat, esportazio zein inportazio lana errazten laguntzen duena. Gogoratu mezuez

Ordenagailu zaharra bota aurretik, ziurtatu datu guztiak behar bezala ezabatuak daudela

gain helbide-liburuko helbideak ere beharko ditugula ordenagailu berrian.

■ **Interneteko gogokoak.** Interneteko nabigatzailean gordeta egon ohi diren gogoko helbideak ere beharko dira ordenagailu berrian. Hemen ere, Firefox erabiltzen dutenek lana erraztuta daukate lehen aipatutako MozBackup erabiliz. Beste aukera bat Google Browser Sync erabiltzea da, edo, besterik gabe, helbide guztiak esportatu eta ondoren berriz inportatzea.

■ **Software lizentziak.** Askotan ez da kontuan hartzen, eta ezinbestekoa gerta daiteke. Ordenagailuan instalatuta dagoen software guztia berriz instalatu behar izaten da ordenagailu berrian. Softwarea CDe-tan gordeta izanez gero, ez dago arazorik; baina Internet bidez erositako softwarea bada, ondo gorde behar dira bai instalatzailea eta baita software lizentzia ere. Ordenagailu zaharrean zein software instalatuta dagoen jakiteko, inbentario hori modu automatikoki egiten duten programak erabili daitezke. Esaterako, Belarc Advisor izeneko aplikazioak lagungarri izan daitezke.

■ **Driverrak.** Ordenagailuak eta bestelako gailuek behar bezala funtzionatzeko ezinbestekoak dira. Ordenagailua aldatu bai baina hari konektatutako gailuak (inprimagailua, argazki kamera...) ez baditugu aldatzen, haien driverrak beharko ditugu ordenagailu berrian ere. Gailu horiek erostean jasotako CDak galdu baditugu, driverrak ordenagailu zaharretik berreskuratu beharko ditugu.

Horretarako, oso ona da DriverMax izeneko doako tresna. Horren bidez, ordenagailu zaharrean instalatuta dauden driverrak esportatu daitezke, eta ondoren ordenagailu berrian berriz instalatu.

Behin urrats horiek guztiak eginda, informazio guztia ordenagailu zaharretik berrira pasatzeko moduan egongo da.

Ez bota oraindik ordenagailua

Ongi da; ordenagailu zaharreko informazio guztia ordenagailu berrira pasatuta dago. Bada garaia ordenagailu zaharra etxetik kendu eta tokia libratzeko. Bai, baina itxaron pixka bat oraindik. Ordenagailu zaharra aste gutxi batzuk gehiago etxean gordetzeagatik ez da ezer gertatzen, beharrezkoa zaigun informazio guztia ordenagailu berrian dagoela erabat ziur egon arte, behintzat.

Behin erabat ziur gaudenean, eta ordenagailua bota edo emateko garaia iritsita, kontuan izan ordenagailu zaharra behar bezala garbitzea. Ordenagailua garbitzea esaten dugunean, ez gara teklatuak izan ditzakeen papurrak edo pantailako hatz-markak garbitzeaz ari, disko gogorrean gordeta dagoen informazio guztia era-erabatzeko baizik.

Ordenagailuko edozein informazio zakarrontzira bota eta hura hustu arren, ez da nahikoa izaten disko gogorretik erabat ezabatzea. Bistan egon ez arren, informazioa oraindik ere gordeta geratzen da, eta erabiltzaile adituek badute hori berreskuratzeko modua. Gaur egun ordenagailuan egoten den informazio asko isilpekoa da, eta, horregatik, komeni da ordenagailu zaharra inori eman edo bota aurretik datu guztiak behar bezala ezabatuta daudela ziurtatzea.

Hori egiteko, badago tresna libre bat, oso egokia: Darik's Boot and Nuke. Tresna hori erabiliz, ordenagailuaren eduki guztiak erabat ezabatuta gelditzen dira. Sourceforge-tik tresna hori jaitsi eta diskete edo CD batean grabatu, eta ondoren ordenagailua abiatu behar da, grabatutako CD hori abiatze unitate moduan erabiliz. Hori eginda, ordenagailuko informazio guztia betiko ezabatuta geldituko da. Orain, ordenagailua prest dago bide berriari ekiteko.

MozBackup:
<http://mozbackup.jasnepa.com/>
DriverMax:
Belarc Advisor:
http://www.belarc.com/free_download.html
DriverMax:
<http://www.innovative-sol.com/drivermax/>
Google Browser Sync:
<http://www.google.com/tols/firefox/browsersync/>

Zibergelako artikuluko guztiak:
www.bakeika.com/blog/zibergela